


www.noa.ria.com

N **u** **!**



**Agur Santixabel,
Gora Santio!**



Uztailaren 19an zehaztuko da errauste plantaren kokagunea

Aritzeta begipuntuan

Alkartasuna Kooperatiba

Usurbildik 5 minutura, Ugarte
baserriaren atzeko aldean.
Zatoz, oso urbil gaude!



- Bertako Kalitatezko Produktuak:
Gazta, yoghurtta, olioak, sagardoa,
txakolina, eztia, c.s.
- Abere elikadurarako produktuen horniketa
eta nekazari produkzioarako materiala.

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

BAYMUE

Etxetresna elektrikoak



Bainugelak,
sukaldeko altzariak eta tresnak
eta opariak

Zubiaurrena, 3

telf: 37 22 42

MANOLI

ILEAPAINDEGIA



-ILEAPAINDEGINTZA
-ILERRAKO TRATAMENDUAK

Zubiaurrena, 10 -2 ezk- 3.atea
Telf.: 943 351 314

- Zerbitzu azkarra eta etengabea.
- Aseguru konpainia guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkiegu.
- Lekualdaketak orokorrean, aurrekontuen arabera.
- Behar diren izapide guztiak egiten ditugu.
- Gehitze berriak.



GONZALEZ
EHORZTETXEA



C/ Munalurra 3 Bajo - 20170 Usurbil
Telf.: 943 362 163
Mugikorra: 608 167 792 / 600 388 652

Txirrikitutik

Gaur egun argazkia leku beretik aterako bagenu, ez genuke horrelako panoramikorik lortuko. Orain lortuko genukeen argazkia bestelakoa izango litzateke, eta ziur aski ez hau bezain politagoa. Argazki honek zerbait berezia badu enkuadrea da. Kalezartik hartuta, bertako zuhaitz adarrekin jokatzuz, herriko kaxkora eramaten gaitu begiradak.

Ezkerraldean Eguzkitza baserria ageri da, egun desagertua eta honen inguruan baratzza, zelai zabala eta sagarrondoaren artean erdi ezkutaturik oilategia. Gaur egun bertan, Eguzkitzaldeko etxeak daude eraikiak.

Atzerago berriz, justu Eguzkitza baserriaren gainean, Olanoenea etxeko lurretan eraikitako etxe modernoak ageri dira, oraindik eraiki prozesuan. Eskuin aldean, Erreka-txikiko etxeak. Urrunean berriz Salbatore elizaren dorrea ikus dezakegu eta honen atzean San Estebaneko muinoa.

Zalao Arnaiz Ibareguren



ARGAZKILARIA: EZEZAGUNA JABETZA: NOAUA! K.E. 1975. URTEA, EGUZKITZALDEA

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maialen Saez, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonsito Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Argazkia: Imanol Otegi, Argazki Press

Aurkibidea

ZUMARTEKOAK ISLANDIARA BEGIRA _____ 5. URR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. URR.

SAN JOANAK ETA SANTIXABELAK IRUDITAN _____ 10. URR.

PORRUSALDA _____ 12. URR.

“Tokiko Agenda 21” filoso-
fiarekin zerikusia duen gutzia
islatu asmoz, argazki lehiaketa
antolatu dute Buruntzaldeko
Udalek.



ERRAUSTE PLANTEN KOKAGUNEAK _____ 14. URR.

NOAUA.COM ORRIALDEKO INKESTAK _____ 16. URR.

USURBIL CUP FUTBOL TXAPELKETA _____ 17. URR.

EKTITALDI GARRANTZITSUENAK _____ 22. URR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



IDOIA TORREGARAI

Gure belaunaldi hori...

30. zenbaki borobilak eskaintzen didan talaia baliatuz, nire belaunaldiaren (X izendatutakoa uste dut, baina zergatik ez dakit. Inkognita delako izango da...) hainbat ezaugarri ekarri nahiko nituzke hona, buruari buelta batzuk emateko baliatzeaz gain, barre pixkat ere egin dezakegulako. Hona hemen horietako batzuk.

-Gure artean adin ierarkia zorrozki errespetatzen zen. Hau da, zu eta zure lagunek frontoian jolasten ari bazinaten eta zu baino zaharragoak zirenak etortzen baziren, automatikoki beraiek hartzen zuten tokia. Eta norbaiti hau oso legezkoa iruditzen ez bazitzaion, segituan aldatzen zuen iritzi; baloi gabe edota buruko txitxoi batekin amaitzen zen "eztabaida". Noski, guk ere berdina egiten genuen gazteagoekin.

-Txirrista izan zen gure bigarren etxea; gure santutegia, nolabait esateko. Bertan ibiltzen ginen harrapaketa (lurra ikutu gabe), baloiarekin, jeitsierak kronometratzen... eta hori guztia inolako segurtasun neurririk gabe egiten genuen. Ikusi besterik ez dago Txirrista tabernan dauden argazkiak. Artean parkea bukatu gabe zegoela hortxe ikusten dira haurrak ia bata bestearen gainean txirrista igotzen lasai-lasai (metro batzuk bazituen ordea); baina argazkia soilik haurrak agertzen dira, guraso bakar bat ere ez. Edo arriskurik ez zuten ikusten edota segurtasun legeak askoz ere lasaigoak ziren... Eta bai, batek baino gehiagok hortzak edota gorpuztaren atal bat baino gehiago hautsi zituen, baina hortxe geratzen

zen.

- Ez genekien telefonoa existitzen zenik. Elkarrekin geratzeko ez genuen SMSrik behar. Zertarako? Egun guztia batera pasatzen genuen, eta bagenekien kalean denak topatuko ginatkeela, edozein ordutan. Gainera, inork ez zuen ordenagailurik etxean, ez eta Nintendorik ere. Kalekoak ginen.

- Ez zen existitzen gaur egun politikoki "ez egokia" zen kultura. Hau da, potoloa zena potoloa zen eta kitto; eta ziurrenik futbol taldeak osatzeko garaian aukeratzeko azkena izango zen. Berdin gertatzen zen argala zenarekin, belarri handiak zituenarekin edota haurrak gaiztoak izan zitezkeen gainontzeko gauza guztiarekin ere.

- Orokorrean gure urtebetzean opari bakarra egiten ziguten gurasoek eta ez genuen keitzeko aukerarik izaten ere. Tokatzen zena tokatzen zen eta listo. Bide honetatik, komunioa egin genuenean uste dut guztioi egin zigutela argazkiak gordetzeko album "zoragarria" eta berarekin bat egiten zuen boligrafo jokoa (denetan "Recuerdo de mi primera comunión" urrezko letretan jartzen zuen). Eta onena zen poz-pozik geundela!

- Heidi, Marco, Jackie eta Nuca, Patri postaria, Barrio Sesamo... eta antzeko marrazki bizidun "pazifikoeekin" hazi ginen. Orduan ez zegoen orain dagoen sakrifizioerik telebistan. Coco-k erakutsitako "lejos" eta "cerca" ren irakaspenen oinordekoak gara.

Gehiago ere badaude, baina horiek etxean edo lagun artean aipatzeko utziko ditut; gaiak asko ematen du eta.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Arazoa ez da kokapena

Gipuzkoan jarriko duten bigarren erraustegiaren kokapena hizpide dugu egun hauetan, batez ere iragarritako aukeren artean Usurbil eta Zubietan daudelako.

Hilabeteak daramatzagu herriko agintariei galdezka zer gertatzen den gai honekin eta ezer ez dakitela (!) erantzun izan digute, berririk dutenean esango dutela. Diputazioko Oiarbide jaunak (EA) eta Sodupe jaunak (EAJ) San Markos mankomunitateko lehendakariak duela egun batzuk aukerak iragarri zituztenean hasi dira, nonbait, mugitzen. Kexu ziren gainera, denbora nahiko ez dietelako eman hainbeste dokumentu aztertzeke eta egin berri duten bileran, lortu dute erabakia atzeratzea... uztailearen 19ra. Baina orduan ez jada hiru leku izendatzeko, behin betiko kokapena finkatzeko baizik.

Kontua ez da, ordea, non kokatu. Errausketaren sistema da aztertu eta eztabaidatu beharrekoa eta eztabaida hori ukatu egin zaio gizarteari eta, baita ere, udal ordezkariari. Urrietako kokagunea aukeratu zutenean, presa eta korrika, ezer sakondu gabe, epeak bete egin behar zirela eta antzekoak erabiliz lortu zuten haien onespena, Usurbilgoena barne. Ez da

guk esandakoa, Amaia Goiaran PSOEko zinegotziak berak horrelaxe salatu zuen azken plenoan.

Gure ordezkari "legalek" (horietako sei ilegitiemoak, ez ahaztu) ez zieten bertaratu ziren herritarren galderei erantzun eta errausketaren sistemaz daukaten iritzia ez zuten adierazi hitzez. Ekintzez, aldiz, erantzun digutelakoan gaude. Arazoa kokapenera desbideratzen ari baitira NAHITA eta horrek esan nahi du ados daudela ingurumenarentzat, herritarren osasunarentzat eta datoen belaunaldientzat hainbeste arrisku dakarren sistemarekin. Hauek guztiak egia ez badira, zergatik ez dute argi eta garbi beren iritzia kaleratzen?

Guk, gure iritzia aspaldi jakinarazi genuen eta herritar asko kezkatuta daudela ikusirik, plataforma zabal eta irekia antolatzea dei egin dugu ukatzen zaigun informazioa emateko, hondakinak tratatzeko sistema hori arrisksuegia eta garestiegia dela esateko eta beste sistema alternatiboak badaudela adierazteko. Beraz, aurrerantzean plataforma horretatik egingo dugu lan "munstro" hori jarri ez dezaten, ez Usurbilen, ez Zubietan, ez inon.

Usurbilgo UHL

Ika-mika !

Agur Motza!

Aurtengo udaberrian ez duk lorerik nere baratzean. Dama beltzaren segak moztu dizkit larrosak eta urratu bihotzak. Aurtengo udaberrian, negarra loratu duk nere baratzean.

Aspaldiko bide zaharrea urrats berria emanez gure ametsen geltokian elkartuko gaituk, ametsak ez baitira ihartzen baldin badira borrokatzen.

Adio Motza! Udazkenean ez diat osto iharturik bilduko Iratiko ohianean, joandako guztiak ez baitira hiltzen.

Besarkada bat lore zekarriat hiretzako.

J.A. Aizpurua "Pana",
Paristik, 2004ko uztaile

Zumarteko gazteak, Islandiara bidean

Iritsi da eguna. Azken hilabeteotan egindako lana plazaratzeko unea da. Uztailearen 11n irtengo dira Usurbildik eta hilaren 19ra arte Islandian izango dira. Kantatu ez ezik, hainbat tailerretan parte hartu eta turismo pixka bat egiteko denbora izango dute.

Uztailearen 11n goiz-goiz esnatu beharko dute Zumarteko lagunek. Goizeko 6:00etan abiatuko baitira Usurbildik Islandiara. Lehenik autobusen bidaiatuko dute, Sondikako airepoturaino hain juxtu. Hegazkina hartu eta lehenik Londoneraino, eta handik Reykjavik-erako bidea egingo dute. Eta hurrengo egunean, "lanera".

Ongi etorri kontzertua egingo da uztailearen 12an eta hantxe izango dira gure ordezkariek ere. Ondorengo egunetan, tailer, txango eta kontzertuz beteta izango dute agenda.

Zumartekoek oso serio hartu dute Islandiako deialdia. Azken asteotan lan berezia egin dute Zumarte-Orereta Abesbatzako ikasleek. Ekainaren azken asteburua, esate baterako, Hondarribiko Juan Sebastian Elkano aterpetxean pasa zuten. Futbolariak bezala, "kontzentrazioan".

EUROPA CANTAT JAIALDIA

Europako Gazte Abesbatzen Federakundea 1960. urtean sortu zen Ginebran (Suitza), nazioarteko elkartrukea eta elkarlanen antolaketegi-tura finkoa emateko ahaleginetan.

Ekitaldi hezitzaileak antolatzea da Federakundearen zeregin esanguratsuenetakoa. Horien artean, Islandiako hitzordua. Haur eta gazteen abesbatzentzat (12 eta 18 urte bitartekoak) bereziki antolaturiko Nazioarteko Astea, Kopavogur herrian ospatuko da aurtengoan.



AZKEN HILABETEOTAN GOGOR ENTSAIATZEN ARITU DIRA ZUMARTEKO IKASLEAK.

Donostiako Kontserbatoriorako hautatu dute Maddi Bereziartua pianojole gaztea

Zumarte Musika Eskolako ikasle da Maddi Bereziartua. Duela gutxi, Donostiako Kontserbatorioan sartzeko frogak egin dira eta piano instrumentuan Maddi izan da aukeratuetako bat. Pianoko ikasketak egiteko 75 ikasle aurkeztu ziren eta Maddi bigarren izan zen hautapen-probetan, lehenengotik puntu bakar batera. Etorkizun handia duen seinale. Datorren urtean, beraz, Donostiako Musika Kontserbatorioan ikasiko du Maddik.



Probak ondo prestatzeko gogor lan egin du Maddi Bereziartuak. Pentsa, azterketa 75 ikaslek egin zuten eta Maddi bigarren geratu zen.

Donostiako Kontserbatorioan hastez gogoz dago Maddi. Lan asko egin beharko du baina gustukoa du pianoa eta klaseak hartzeko irrikitan dago. Maddi pozik dago eta baita Zumarte

Musika Eskolakoak ere. Zumarteko kideek adierazi digutenez, "ez da profesionalizazio bidea hartu duen lehenengo ikaslea, eta aurrerago ere bide hau jarraituko duten ikaslerik izango dela uste dugu".



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Festarik festa!

Kaixo auzotar agurgarriok, herriko festak Kondo joan al dira? Kalezarren hasi genuen denboraldia, Usurbilgoak oraintxe amaitu dira eta errenkan etorriko dira beste auzoetakoak ere. Hurrengoak, Zubietan izango ditugu eta hauek amaitu ahala bertakoak hasiko dira.

Dagoeneko ari gara errifak saltzen, ahal den moduan. Azken urteotan bezala, jende gutxi gabiltza Jai Batzordean eta aurtengo festak antolatuta badaude ere, hemendik aurrerakoak guztion esku daude. Festa aurreko lanak merze izaten du gero egun gutxitan fruituak jasotzeko. Festak amaitzean, Santuenea eta Aginakoen zain geratu beharko dugu.

Festak alde batetara utziaz, Zumeta aurreko lanak aspaldian geldirik daudela gogora ekarri nahi dut. Duela hilabete batzuk zuloa egin zuten, gero zuloa tapatzeko burnizko bi plantxa zaratatsu jarri zituzten. Egunetan zarata atera-



tzen egon ondoren, bazirudien lanean hasiko zirela, baina plantxa zaratatxuak kendu eta oraindik ez dute gehiago ikutu, noizbaite bukatuko ote dute behintzat.

Beno, udara bikaina izan dadila eta ondo pasa aurtengo San Esteban jaiak.

Saroe Jauregiko pagoa



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Bada egun hauetan hunkitu nauen gertakari bat eta lekutxo hau aprobetxatuko dut komentatzeko; Saroe Jauregiaren aldamenean zegoen sekulako pago haundi hori jada ez dagoela antzemango zenuten utzi duen hutsunea dela eta, ze Patrineko terrazatik zeharo ikuspegi ezberdina dago geroztik. Orain zero puska eder bat eta Andatza ikusten dugu bertan. Oraingoa polita da baina nahiago lehenagokoa geroz eta zuhaitz gutxiago ikusten baititugu herrian.

Antza denez, gaixotasunen bat omen zeukan eta zeharo moztu dute.

Gainera, aintzinako pagoa zenak 90 bat urte omen zituen eta oraindik pena gehiago ematen dit.



Oilasko batzuren kontuak

Oraingo honetan auzoko jaien balantze txiki bat egiteko hartu nahi dut tarte hau, festen ondorenean idazteak tristura eta arrenkura pixka bat ematen badu ere. Hori ondo joan diren seinale izango da noski!

Festak San Juan egunaren bezperan hasi ziren, ohi-turari jarraiki, ohiko San Juan eskearekin. Jende mordoxka atera zen eta hori lan eguna zela kontutan hartuta benetan eskertzekoa da. Hor ibili ziren etxex etxe baserriz baserri buila eta zalaparta, umore onean. Baina eskea aitzakia modura hartuta larunbatez atera ziren oilasko biltzailei buruz apunte pare bat egin nahi ditut.

Gauza bera ez diren arren, uste dut antzekotasun handia dutela biek. Bi talde osatu ziren: ume eta gurasoak alde batetik eta gazteak bestetik. Lehenengoak kopuru haundian elkartzu ziren eta baraien lana txukun-txukun eta ondo egin zuten. Gazteen taldea, ordea, beste kontu bat izan zen.

Hasteko, berandu atera ziren. Seiretan izan beharrean zazpiretan hasi zuten berain lana. Zergatik? Bada, seiretan oilasko biltzera ateratzeko lau lagun besterik ez zeudelako plazan eta beste bakarren batzuk elkartzeko itxaron behar izan zutelako. Egia esan pen-

tsatzeko ematen duen gaia da, hausnarketa bat merezi duena. Egun gutxiren buruan San Juan esketik oilasko biltzera parte hartzaileen kopurua nabarmen erori zen, 20-25 lagun izatetik 7ra. Lehena lan egun batez eta bestea asteburuan. Zerk eragin ote du aldaketa?

Arrazoiak asko izan daitezke. Hernanin festak garai berdinean ospatzeak eragin handia duela uste dut, herri honek gure artean duen tiradizoa jakinda. Kalejarrentzat gehiegi ote dira eskea eta oilasko biltzea biak ospatzea?

Ez dut uste, orain dela urte gutxi biak egin ziren eta arrakastatsuak izan ziren. Gazteak gogorik gabe ote daude? Honek ere ez du zentzu askorik 23an jendeak izan zuen erantzuna ikusita. Kasualitatea izan ote da aurtengoa? Baliteke, eta hala izan dadila espero dut.

Kontuak kontu, uste dut eskertzekoa dela festetako larunbatean auzoko zazpi gazte horiek egindako ahallegina. Zalantzarik gabe oilasko biltzea bera ez zen behar bezalakoa izan, denboraz motz aritu zirelako eta baserri asko pasa gabe utzi zituztelako, baina zer egin behar zuten, atera gabe gelditu? Auzoko usadioetako bat bete gabe utzi? Nik uste dut hori baino hobea dela egin zutena, ahalegina eta gogoia onartu behar zaizkie.

Kalejar



ANDONI
UDABE

Zuntz optikoa noizko?

Urteak aurrera doazen ahala, geroz eta gehiago erabiltzen ditugu komunikabide eta medio berriak. Geroz eta beharrezkoagoa da Internet, eta ditugun ohiko telebista kateekin ez dugu nahikoa. Geroz eta jende gehiagok jartzen ditu ADSL bezalako lineak edota satellite bidezko telebistak beren etxetan.

Baina Atxegalden, eta Usurbilgo beste zenbait auzotan, duela urte batzuk zuntz optikoko kanala jarri zuten, kaleak eta asfalto berritu zituztenean, hain zuzen.

Zuntz optikoa argia garraiatzeko erabiltzen den beirazko zuntz bat da. Argia zuntzaren mutur batetik sartzen denean, oso galera gutxirekin garraiatzen da, baita zuntza okertuta badago ere. Zuntz optikozko kableak ohiko kable handiekiko alternatiba suposatzen du.

Izan ere, jostorraz baten zulo txoan kable sorta ederra sar daiteke.

Komunikabideetarako izugarritzko aurrerapena da. Izan ere, seinaleak distantzia luzeak ibil ditzake errepikagailu bat behar aurretik. Irudiak ere bidal daitezke, horretarako milaka zuntz elkarren ondoan jarriz. Honek guztiak Interneten abiadura azkartuko luke, telefonorako erabiliko litzateke eta telebista kate gehiagoko izango genituzke.

Euskaltelek jadanik jarri du zuntz optikoko sistema hau Zarautzen, Zumaian, eta Donostiako zenbait auzotan, besteak beste. Usurbilen ere kanalak bota zituzten, baina dirudienez gutaz ahaztu dira. Zergatik izango ote da herriaren onurarako diren gauzetan ez dagoela presarik, baina erraustegiak jartzea erabakitze inork ez duela denborarik galtzen?

Atxegalde



NEREA
KORTA



AGUSTIN
ESNAOLA

Santuenea

Auzoari buruz idatzitakoa gogoratuz

Ez da erraza izaten, Noaua!tik deitzen zaituztenean, artikulua idatzi behar duzula esanez. Ordenagailuaren aurrean jarri eta zerbait idaztea, baina zer idatzi? Askotan asmatzen ibili behar izaten dugu edo buruari bueltak ematen hasi behar dugu. Eta gaurko honetan, orain arte idatzi ditudan artikulua batzuk hartu eta gogoratu ekarri nahi ditut.

Orain dela 3 urte, 2001eko ekainean, Ametz gaiztoaren lelopean artikulua bat idatzi nuen. Honek ipuin bat azaltzen zuen, udalari eskakizun bat eginez. Auzoan ez zeudela, zaborra biltzeko kontainerrik. Hau zen, zeukan eskakizuna, eta hara non, oraindik auzoan kontainer bakar bat daukagula. Benetan bai zailak direla zenbait gauza jartzea herri honetan.

Joan den urteko uztailean, Santueneako idien Santixabeletan parte hartutako kronika bat egiten nuen. Aurten, ordea, ezin hori bera egin. Aurtengo Santixabeletan, kanpoko idiak ekarri dituztelako erakustaldia egitera. Dena den, daukaten idia pres-

tatzen ari omen dira aurtengo Errezilgo frogan parte hartzeko.

2003ko irailean, Julianekin elkarrizketa bat eduki nuen. Berak asko eskertu zidan, abizena ez jartzeagatik. Baina orain dela gutxi berarekin topo egin ondoren, beste artikulua batetan idatzitakoa zuzendu behar nuela esan zidan. Eta zuzenketa hau da: 2004ko maiatzean Noaua!ko kronikan, Esnaolarren harategia Usurbilen ireki zen lehengo izan zela, esan nuen. Ez omen da horrela, zuzendu zidan Julianek. Une honetan irekita gertzen den harategi zaharrena dela, bai, baina Esnaolarren harategia irekitzerako beste bi ba omen zeuden Usurbilen. Bat Artzetarrena eta bestea, ez naiz gogoratzen.

Beste kronika batzuk egin ditut ere, batzuk, Atalluko industrialdeak uholde baten aurrean sortu ditzaken kalteari buruz, auzoko etorkizunari buruz ere eta beste batzuk, Txinan ibilitako auzotarren historiak... Eta oraindik azaltzeko geratzen zaizkidanak.

Eta gu non?



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Dagoeneko hilabete pasa da azken bozketa eguna izan zenetik. Goizeko 11:30ak aldera gure botoa emateko asmotan abiatu ginen udaletxe aldera. San Estebandarroi, botua pleno aretoan ematea dagokigu eta hantxe sartu ginen ate nagusitik. Ezkerretara nora joan behar genuen adierazten zuen papera "Aginaga, Txokoalde, Santuenea" Eta gu? Dudetari hasi ginen. Guk ere beti han ematen genuen botua baina han ez zuen San Esteban ez eta Urdaiaga ere jartzen. Agian beste gelaren batean egokitu-ko zitzaigun oraingoan. Galdetu genuen eta ez, gu ere han ginela. Hauxe besterik ez genuen behar: ni ez naiz Aginagakoa, ez eta Txokoaldekoa, ez eta Santueneakoa ere. Ez zitzaidan ba niri oso ondo iruditu, nik uste dut ez zaiola inori gustatzen berataz ahaztutzea. Ea ba, hurrengo bozketa egunean gutaz gogoratzen zareten.

Baina beno, ez dut dena keja gaurko honetan. Sinestu ezinik nabilen arren, hasi dira farolak jartzen gure auzorako bide honetan. Egia esan,



momentuz behintzat oso azkar ari dira langileak eta gure errepide hau estua dela kontuan hartuta, ez da kotxe ilada luzerik sortzen kamioiak direla eta.

Aurtengo Sanestebanak gainean ditugu eta ordurako, horrela jarraitzen badute behintzat, hainbeste urtetan eskatutako errepide argitsua izango dugu. Ea egia den.

Piperrak

Uda garaia iritsi zaigu eta horretaz kontu-ratuak izango gara denok honezkero; umeek eskola garaia bukatu dute (udarako zerbait zintzilika utzitako bakarren bat izango den arren), eta etxe inguruan dabilkizkigu, batez ere txikienak, eta hauekin zer egin pentsatzen pasa behar izaten dute batzuk eguna; nola entretenitu, nora eraman ez aspertzeko, eguraldiari begiratu etab.

Handixeagoak egiten direnean, berriz, gaztetxo bihurtzean alegia, ez dute aspertzeko denborarik ere izaten, beti badute zerbait egiteko; lagunekin hondartzara joan, kalean hizketaldi luzeak izan... Baina gogoratzen al zarete, orain dela urte batzuk gure baratzetan nola ikusten genituen horrelako gazte batzuk xoxa batzuk ateratzeko asmotan?

Aginagako baratzetan dezente izaten genituen;

piper batzuk bildu, kontu batzuk esan eta, aipatu bezala, beraien kapritxoetarako diru pixka bat eskuratzeko asmoz. Baina egun, jadanik ez da horrelako kasu askorik ikusten. Lana neketsua da eta ez oso atsegina; postura deserosoa, beroa... baina zerbait nahi duenak...

Azken urte hauetan, eta geroz eta gehiago gainera, lan hau egitera kanpotarrak etortzen zaizkigu, atzerritarrak; errumaniarrak, Hego Ameriketako hainbat eta hainbat herrialdetakoak etab. Hauentzat ere lan hau ez da eroso eta gustukoena izango baina dagoenarekin moldatzen dira. Guk nahi ez dugun lana hauei eskaintzen diegu eta beraiek onartu noski. Zergatik gertatzen da hau? Agian beraien jatorriko herrietan egoera kaskarragoan bizi zirelako. Eta gu, askotan ez gara konturatzen ze zorteko garen jaio garen lekuan jaio garelako.

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Errauste plantarik ez!

Gipuzkoako hiri-hondakinen plan orokorra ez da gaurkoa. Legealdiak pasa dira plan horren oraingo bertsiora iritsi arte. Eta, aztertu diren aukeren artean, errauste-plantena ez da orain arte onartu. Ezker abertzalea udaletatik kanpo utzi arte ez du San Markos mankomunitateak erraustearen aldeko apusturik egin. Egoera antidemokratiko hau aprobeixatu dute beraien gustuko "irtenbidea" bideratzeko (gutxi batzuen interes ekonomiko potoloak daude hor atzean).

Agintarien hitzetan erraustea da "irtenbide bakarra". Ez dago besterik. Hori esan, eta aurrera egin dute, herri-plataformetatik egin diren kritika arrazoituei inolako kasurik egin gabe. Berdin zaie 500 sendagilek eredu hori osasunarentzat kaltegarria dela esatea. Berdin zaie herrialde aurreratuetan erraustea ezetsi, eta beste planteamendu batzuk egiten direla jakitea. Kritikagileak deskalifikatu, eta ez dute lanik hartu arrazoiaren bidez erantzuten.



Nahikoa zaie beren aginpidea erabiltzea.

Eta, zertan ari da Usurbilgo Udala? Berriki jakin dugu azken erabakia atzeratzea eskatu duela, kokalekuari buruzko txostena aztertze-ko. Eta, uztailearen 19ko bileran, zein kokaleku hobetsiko du Usurbilgo Udalak? Ez al du datorkigunaren aurrean jarrera intsumiturik hartu behar? Otzan-otzan onartu behar al du halako proiektu erasokor hau? Ez al du herriarekin bat egin behar?

Zubieta



**XABIER
ARREGI**

Irudi festa!

Santixabel jaiek irudi asko utzi dizkigute. Horietako batzuk bildu ditugu orrialde honetan. Irudi hauek guztiak eta gehiago,

noaua.com web orrialdean topatuko dituzue.

Eta festazaleok, ez larritu. Laster hasiko baitira Zubietako Santio jaiak.



JAIETAKO II. PINTURA LEHIAKETAK GAZTETXO ASKO BILDU ZITUEN.



ILASKO BILTZAILEEN JOKOETAN IKUSLE ASKO BILDU ZIREN.



BURUHANDI ETA ERRALDDIEK EZ ZUTEN HUTSIK EGIN NAHI IZAN.



AURTEN, TXUPINAZOAREN OSTEAN, HELDUEN DANBORRADA BERRESKURATU DA.



UMEEEN DANBORRADA ERE, JENDETSUA ETA ALAIA IZAN ZEN.



SANTIXABEL EGUNEAN, NOLA EZ, IDI-DEMAK, AIZKOLARIAK, HARRIJASOTZAILEAK...



SANTIXABEL GAUA BARRICADA ETA SUSMO TALDEEK GIROTU ZUTEN.



ERREPRESALIATUEN EGUNEAN, KALEJIRA ERREBEINDIKATIBOA EGIN ZEN.



TRIKITIXA FESTAN USURBILGDO ETA INGURUKO HERRIETAKO TRIKITILARIAK ARITU ZIREN.



AZKEN EGUNEAN, SAID ATSEGINAK ESKAINI ZITUZTEN GAITEROEK ETA JOTEROEK.



KOLORETSUA IZAN ZEN SENEGAL ALDETIK IRITSI ZITZAIGUN IKUSKIZUNA.

Arantzazu Aranburuk irabazi zuen Santixabel Bertsopaper Lehiaketa

Arantzazu Azpirozek irabazi zuen XXVIII. Santixabel Bertsopaper Lehiaketa. “Eguneko Zentroa” izeneko bertso sortarekin eskuratu zuen lehen postua Arantzazuk.

Epaimahaiak aditzera eman zuenez, Joxe Domingo Aizpuruak irabazi zuen bigarren saria. Hirugarrena Kerman Errekondorentzat izan zen. Aldamenean dituzue Arantzazu Azpirozen bertsoak. Zorionak denei!

“Eguneko Zentroa”

1
Bada zentro berri bat
jaio dena doi-doi
hau sortzeko izan da
hainbat arrazoi.
Aiton-amonentzat da
leku aurrerakoi.
Hau jartzeko modua
egin duzuenoi
batzu eta besteoi
eskerrak guztioi
hortan segi otoi
begirada txit goi,
Eguneko Zentrotik
agur bat denoi

2
Gure berri pixka bat
goaz ematera
inork jakin nahi badu
horra aukera.
Askok egiten dute
honako galdera
ea nolako den
gure bizikera.
Ausartuko gera
aipatuz gainera
gure jarduera
goizetik hasi eta
arratsaldera

3
Taxisean etorriz
Puntapaxtik gora
hona iristen gara
gure txokora.
hurbiltzen garenean
elkarren ondora
periodikoa jartzen
digute albora,
berriak kolkora
soinketa gerora
ona bada, nora?
arinka kanpora
Bazkaldu bitartean
a, ze gustora!

4
Bapo bazkaldu eta
siesta galaia
lagun, telebistaren
argi dirdaia.
Gero eskulanetan
beti dago gaia
hartan saiatutzeko
prestatzen da mahaia
lan politen nahia
bihurtzen da jaia
ta gero kanpaia
zein une alaia:
irteteko ordua
edo garaia

5
Lanak eta jokoak
ez daude utzita
baizik ondo uztartu
eta josita.
Gero nahi duenak
badu hemen zita
hortarako ordua
daukagu jarrita
ez gaude itxita
hartzen da bisista
mahaian eserita
ze saio polita...
Poztutzen dira hola
gu ikusita

6
Familian bezala
nola garen bizi
laguntasuna dugu
beti nagusi.
Hau nola lortzen dugun
behar da ikasi:
eltze batean jarri
hainbeste kutizi
haserreak, gutxi
batere ez kasi
umorea nahasi
piper eta guzi;
errezeta ona da,
zatoz, ikusi.

7
Sarri esan ohi dugu:
“hau da mixeriya,
atarramendu onik
ez degu iya”
holakotan zer egin?
hau da komeriya!
Erremedio onena
daukagu jarriya
batzutan neurriya
ez da ez txikiya
inoiz garestiya
zera alegiya:
dendan erosten ez den
pazientziya.

8
Giro aparta dugu
egi borobila
eta esku artean
aukerak, mila
hau nahi bada ez joan
urrutira bila
nahi lukeenik bada
gertu dauka isila
bira maratila
bazara abila
ez egon isila
aurrera mutila!
Probatu nahi duena
etor dadila.

9
Zortzi amonatxo ta
bi zaintzaile gara
horra denon artean
bertsuok para.
Hau dela egin dugu
hamaika algara
ta hemendik aurrera
gutxi errepara
bihoaz plazara
edota dantzara
kontua zera da
irabazten bada;
egin behar dugula
txokolatada.

Buruntzaldea argazki lehiaketa

Astigarraga, Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo Udalak elkarrekin lanean ari dira, "Udaltalde 21 Buruntzaldea" izeneko taldearen baitan. "Tokiko Agenda 21" ekimena garatzeko osatu den bilgunea. Sozializazio kanpainaren barruan, udal hauek argazki lehiaketa antolatu dute "Buruntzaldeari argazki begirada, Garapen Iraunkorraren bidean" izenpean. Honen bidez, "Tokiko Agenda 21"aren kontzeptua eta filosofiarekin zerikusia duen gutzia (ingurune naturala, garraioa, ura, hondakinak...) islatu nahi da.

Lehiaketa honekin gure herrietan ditugun arazoak eta horiek konpontzeko izan daitezkeen aukerak islatzen eta horien inguruko hausnarketak egiten lagunduko diguten irudiak bildu nahi

dira.

Nahi duen oro aurkez daiteke lehiaketa honetara, baina gehienez bi argazkirekin. Irudiaren tamaina, gutxienez, 15x15 eta gehienez 30x30 cm-koa izango da, negatiboan edo CDan aurkeztu behar dira eta sobre itxian, kanpoaldean lehiaketaren lema eta barruan norberaren datuak, izen abizenak, helbidea eta telefonoa adieraziz.

Argazkiak aurkezteko epea uztairen 30ean amaituko da. Ordurarte, 9:00etatik 13:00ak bitartean udaletako erregistroetan aurkez ditzakezu lehiaketarako argazkiak.

Epaimahia udal ordezkari batek, Buruntzaldeko teknikari batek eta argazki munduko profesional batek osatuko dute. Emaizta, aldiz, irailaren 24an emango dute aditzera. Sari banaketa, dena den, urriaren 8an izango da. Sari nagusia eskuratzen duenak 300



INGURUNE NATURALA, GARRAIOA, URA, HONDAKINAK... GAIAK JOKO ASKO EMAN DEZAKE.

euro jasoko ditu, baina beste bi sari izango dira, bakoitza, 150 eurotako.

Informazio gehiago udalean eskura daiteke.

Ezustea San Inazion

Ekainaren azken egunean gertatu zen. San Inazioko zubia pasa eta gero, Zumarte Industrialdera sartzeko asmoa zuen kamioilariak. Baina errepide erdira erori zitzaion harria. Antza, harria kamioira lotzen zuen egurrak kale

egin eta gero. Harria bide erdian gertatu zen baina ez zuen kalte pertsonalik eragin. Arriskutsu bazegoen ere, ezbeharrak ez zuen trafikoa eragotzi.

Istripuak eragindako tragu txarra nahikoa ez eta isuna ere ordaindu beharko du kamioiaren gidariak.



USURBILGO HAUR ESKOLA

04/05 ikasturtean lan egiteko eta lan poltsa osatzeko pertsonalgora

ZER ESKATZEN DA

-Haur Hezkuntzako berezitasunean diplomatua.
-E.G.A.

ZER BALORATZEN DA

-Usurbildarra izatea.
-Esperientzia.

ESKAITZEN DA

1. Egun erdiko kontratua
-Abendua-Uztaila bitarteko lanaldia
-Gizarte segurantzza

2. Egun osoko lan kontratua

-Urtarrila-Uztaila bitarteko lanaldia
-Gizarte segurantzza



Haur
Eskola

Interesatuak bidali Curriculum Vitae-a Usurbilgo Haur Eskola, Sakabanatuak 15, Kalezar 20170 Usurbil helbidera
Uztailak 12 baino lehen

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

LOU LIZARRALDE ilecapaindegi mixtoa
Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa, manikura, manikura frantsesa, pedikura, eta makilujca.

Zubiamenez, 5b Tel: 943 36 1971

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JU NTX
ur n
k l n u s l Usur l
S/

Uztaileko arratsaldetan itxita egongo da KzGunea

Usurbilgo KzGunea udako ordutegian ari da lanean. Hilabete honetan, beraz, KzGunea soilik goizez egongo da irekita, honako ordutegiarekin: goizeko 08:00etatik arratsaldeko 15:30era. Printzipioz, ordutegi aldaketa honek uztaileari bakarrik eragingo dio. Irailan, betiko ordutegira itzuliko da KzGunea. Gogoan izan abuztuan itxita izango dela KzGunea.



IRUDIAN, AZKEN IKASTARDAN PARTE HARTU DUTEN IKASLEAK.

IKASTAROAK

OINARRIZKO INTERNETA (20 ORDU)
Uztailak 12-23
Goizeko 08:00etatik 10:00etara (euskaraz).

Uztailak 12-23
Goizeko 10:00etatik 12:00etara (euskaraz).

-Uztailak 19-30
Eguerdiko 13:30etatik 15:30era (gaztelaniaz).

NAGUSIWEB (10 ORDU)
Uztailak 26-30
Goizeko 11:30etatik 13:30era (euskaraz).

MINTEGIAK

“MESSENGER, BAT BATEKO MEZULARITZA”
Uztailak 8-9
Goizez, 08:00-10:00 (euskaraz).

“SEME-ALABAK BABESTU”
Uztailak 8 osteguna
Goizez, 10:00-12:00 (gaztelaniaz).

“ASTEBURU BAT EUSKAL HERRIAN”
Uztailak 27 asteartea
Goizez, 09:00-11:00 (euskaraz).

“ETXETIK EROS EZAZU”
Uztailak 29 osteguna
Goizez, 09:00-11:00 (euskaraz).

AZTERKETAK

IT TXARTELA
Uztailak 30 ostirala
Goizez, 09:00-11:00.

Lanbide Hastapen Ikastaroak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil herriek adosturiko lankidetzaz hitzarmen bati esker, 21 urte bitarteko gazteei lanbide bat ikasteko aukera eskaini ohi zaie. Izena emateko epea zabaldu berri da.

Usurbilgo gazteek, Aginagan ez ezik, Andoain eta Lasarte-Oriako tailerretan ere izena eman dezakete. Ikastaro hauetan bakarrik 16-21 urte bitarteko gazteek izango dute aukera: DBH graduatua lortu ez dutenak, langabezian daudenak edota lanbide bat ikasi nahi dutenak.

ESKUALDEKO LANBIDE HASTAPENEN IKASTETXEN LEKAINITZA 2004/05 IKASTURTEA

- ✓ **ESPEZIALITATEAK:** Sukaldaritza eta gozogintza, ile-apainketa eta edergintza, igeltsaritza eta teknika herriak, zurgintza eta egurra, automobilarren karozeria, galdaragintza eta soldadura.
- ✓ **NORI ZUZENDUA:** 16-21 urte bitarteko gazteak, Usurbilgo herriarrak, ikasten ari ez direnak edota langabezian daudenak.
- ✓ **IZENA EMATEKO EPEA:** Ekaina, uztaila eta irailaren 15 arte, Udalerriean 943 . 37 . 19 . 51
- ✓ **SUSTATZAILIAK:** Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritza, Europako Gibeare Fondea.



MAHUKA

G z n t m k u m z k n
m k r r u z t
h m n u r k t u k u z u

Itx. st k l . 3
Tel. 33 11

PATRI

JATE TXEA

- Eguneroko menuak
- Plater txabonatuak
- Ogitarteak

Tel: 943 36 27 25
Kale nagusta, 14

ERRAZ IN

Igeltseritza

KLINUS I

Tel. 33/27135125
Sntu M 2255

Uztailaren 19an zehaztuko da errauste plantaren kokalekua

Uztailaren 19an jakingo dugu Gipuzkoako bigarren errauste plantaren kokagunea zein izango den. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko diputatu den Luis Maria Oiarbidek bederatzi herrien zerrenda plazaratu zuenetik, kezka areagotu egin da Usurbilen. Askorentzat, ordea, kokagunea baino errauste-sistemaren alde egin den apostua da kezkarriena.

Teorian, bederatzi herri dira errauste planta jasotzeko hautagaiak: Bergara, Villabona, Donostia, Zestoa (Oliden), Urnieta, Ormaiztegi, Beasain, Zubieta eta Usurbil. Errauste planta jasoko duen herriaren izena uztailearen 19an ezagutuko dugu. Usurbilgo Udalak, gainontzeko udalerriek eta mankomunitateek bezalaxe, azken erabakian hartuko du parte. Herri denek aukera berdina dituztela esan den arren, "azterketa tekniko" arabera, kokagune hauek dira egokienak: Usurbilgo Arpita Zaharra, Donostiako Lostegikogaina eta Zubietako Eskuzaitzeta.



AZTERKETA TEKNIKOEK DIOTENEZ, ARITZETA OMEN DA KOKAGUNE EGOKIENA

Arpita Zaharra eta Lostegikogaina Aritzetan kokatzen dira. Arpita Zaharra, Usurbilgo lur-eremuan; Lostegikogaina, Donostiakoan. Hirugarren hautagai nagusiak, Eskuzaitzeta, Zubieta, Usurbil, Donostia eta Lasarte-Oria bil-tzen ditu bere baitan.

Plataforma osatu da Usurbilen

Herriko jaietan ikusi den bezalaxe, errauste planten gaiak kezka eragin du herritar askoren artean. Indarrak bildu asmoz, plataforma bat osatu berri da Usurbilen. Uztailearen 7an, epaitegiaren atzeko aretoan osatu zen plataforma (Zubietakoa aspaldi dago martxan).

Udalbatza plenoan aztertu zen gaia


Azker eta denbora gutxian hartu nahi da erabakia. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren Jarraipen Batzordeak ekainaren 28an igorri zien balizko kokaguneen txostena udal eta mankomunitate arduradunei. Lau eguneko epean, beraz, txostena aztertu eta bederatzi hautagaietatik sei alde batera utzi eta hiru leku aukeratu behar ziren.

Tartean, Usurbilgo Udalaren ohiko udalbatza plenoa egokitu zen, ekainaren 29an hain zuzen. Besteetan baino jende gehiago bildu zen plenoan (tartean, UHLko ordezkariak). Gai-zerrendako puntuak aztertu ostean, udal gobernua errauste planten inguruko gaiari heldu zion. Luis Mari Ormaetxea alkateak lau erabakiren berri eman zuen: errauste planta ezartzeko bederatzi hautagaietatik hiru aukeratzeko uztailearen 1erako hartu beharreko erabakia bertan behera uztea eskatuz idatzi bat bideratu zuela.

Bigarrenik, kokaguneen inguruko txostena ingurugiroko udal teknikariaren eskuetan utziko zuela. Erabakirik hartu aurretik, txostena teknikoki aztertu nahi dela, alegia. Hirugarrenik, Zubietako Herri Batzarrarekin bilduko zela agindu zuen alkateak. Eta azkenik, txostena euskaraz bidaltzeko eskaera ere egin zaio Foru Aldundiari, Udalak erdaraz jaso baitzuen.

Eskuzaitzeta (Zubieta)


Azken NOAUA!n aurreratu nagusien artean da. Foru Aldundiaren azterketa egin duten teknikarientzat, Eskuzaitzeta izenez ezagutzen den kokalekua egokienetakoa da. Eskuzaitzeta ondoan Garraioaren Hiria eraikitzen ari dira (Lasarte-Oria zeharkatzen duen N-1 errepide ondoan). Gainera, komunikazio-lotura onak ditu. Donostiako lur-eremuan kokatzen da Eskuzaitzeta, baina Lastegikogainaren kasuan bezalaxe, Donostiako alkatea ez dago balizko aukera honekin ados. Elorzaren esanetan, Eskuzaitzeta, urbanistikoki, egokiagoa izan daiteke bestelako proiektuak gauzatzeko.



Arpita Zaharra (Aritzeta)


Gipuzkoako bigarren errauste plantaren kokagunea zehazteko bederatzia aukera planteatu ditu Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren Jarraipen Batzordeak. Aukera gehien dituzten hiru kokaguneak inguruan ditugu: Eskuzaitzeta (Zubietatik gertu), Arpita Zaharra (Usurbil) eta Lostegikogaina (Donostia). Azken bi hauek Aritzetan kokatzen dira, bata bestea-erengatik oso gertu.

Azterketa teknikoan arabera, sarbide ona du Arpita Zaharrak. Aritzetako zerbitzugunetik lotura zuzena, egin berria. Kokagune honek baditu aldeko argudio gehiago: iristeko erraztasunak, transferentzia zein garraioaren kostu eta eragina oso egokiak, ingurumen eragin ertaina...



Lostegikogaina (Aritzeta)

Arpita Zaharra bezalaxe, Lostegikogainako kokagunea ere Aritzetan aurkitzen da. Kontua da Arpita Zaharra Usurbilgo lurretan dagoela; eta Lostegikogaina, berriz, Donostian. Kokaguneen eztabaida hasi zenean, mankomunitate zein udalerrietako politikariren artean teoria hauze zabaldu zen: “zabor gehien eragiten duen herriak jaso dezala errauste planta”. Teorizazio horri jarraiki, Lostegikogainak aukera asko lituzke. Odon Elorza Donostiako alkatea, ordea, aurka azaldu da Aritzetako kokagune hori urbanistikoki interesgarria omen delako. Behar adina azterketa egin eta erantzun bat eman baino lehen, Odon Elorzak hilabeteke epea eskatu zion Foru Aldundiari. Baina azken erabakia lehenago hartuko da, hilaren 19an hain zuzen.





txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 943 36 04 66




Urtinea

I r k - I r l n r k
L r s r i k - K r k

San Esteban
Tif.: 943 36 22 55

Inkestak, noaua.com web orrian



Tarteka-marteka bada ere, gure web orrialdean galderak luzatzeko ohitura dugu. Inkesta atala, web orrialde osoa bezala, irekia da. Edonork bere iritzia eman dezake, edonork har dezake parte.

Inkesta hauetan, gainera, edonoz murgildu zaitezke. Denbora batez, behintzat, sarean izan ohi dira.

Errauste plantaren gaia ahoz aho dabil azken asteotan.

Horren ingurukoa da planteatu dugun azken inkesta: "Errauste sistemaren inguruko informazio nahikorik eman dela uste al duzu?" galderari, botoa eman duten %75ak ezezkoa erantzun dio. Boto-emaileen %25ak, ordea, gaia ez duela jarraitu aitortu du. Zuk zer uste duzu? Eman zure iritzia noaua.com web orrialdean.

Santixabeletako argazki ugari gure web orrialdean

Santixabel jaietan argazki ugari ateratzeko denbora izan dugu. Irudi horiek guztiak aldizkari honetan biltzea ezinezkoa denez, noaua.com web orrialdean topatuko dituzue jaietako argazki esanguratsuenak.



Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozetegia

L A B E - G O X O

L T I L L E

ITU GINTZ G SET E GINTZ

I N S T L K U N T Z K

IZTITX K I F . (3) 3 2 3 5 - 3 3 3
E H F M I 2 1

MIKEL

IZ GI E

ELEKTRIZITATE

Uztailaren 7
Rte
el - 0 0 1 1 1

H n k n U z n n s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N U S , 2 I C 2 1 1
Tlf 3 3 7 7 USU IL

USURBIL

TABERNA

- Plater konbinatuak
- Pintxo beroak
- Sandwich-ak
- Ogitartekoak

Rondaberrri kalea 5, 943 360 763

IGELTSE ITZ

t

INTU

San 11 7 5 3 5 5 5
1 3 2 1 3

Bukaera polita izan zuen Usurbil Cup Txapelketak

Ekainaren 27an jokatu ziren Usurbil Cup Aretu Futbol Txapelketako finalak. Benjamin mailan Porretas taldeak lortu zuen garaipena. Alebin nesken mailako finalean, Txiriboga izan zen txapelketa. Alebin mutiletan, berriz, Makarroiak taldeak irabazi zuen txapelketa. Infantil mutilen mailan, Butaneroak taldekoek irabazi zuten. Nesketan, aldiz, Azken Putz taldeak eskuratu zuen txapela.

Kadete mutiletan, Beltza ta zia taldea izan zen garaile. Aipatzekoa antola-

tzaileen ahalegina. Finalistek jasotako sariesz gain, parte hartzaile guztien artean kamisetak eta taldeko argazkia banatu baitzituzten.

Usurbil Cup txapelketa antolatu duten lagunek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile moduan aritu diren tabernari eta dendariei:

Antxeta Jatetxea, Bordatxo, Benta, Irrati, Txirristra, Aitzaga, Txiriboga, Zendoia, Laurok liburudenda, Mahuka arropa denda, Dia supermerkatua, Pello arraindegia, Labegoxo okindegia eta Usurbilgo KzGunea.




IRUDIAN DITUZUE INFANTIL MAILAKO IRABAZLEAK.

Tourra, Pirinioetan barrera

Uztailearen 3an hasi zen Tourraren ibilbidea. Santio Eguna bitartean, txirrindulariek 3.300 kilometro egin beharko dituzte. Teorian, erlojupekoak, Pirinioetako etapak eta Alpe D'Huezeko kronoigoera izango dira erabakigarriak.


Aurten, Pirinioetako etapak asteburuan egokitu dira. Zubeldia Taldeak egunero jarraituko ditu etapak Txiriboga tabernan. Ikusteke dago Pirinioetara joango ote diren edo ez. Badaezpada, Pirinioetako bi etapak nabarmendu nahi izan ditugu.

12. etapa. Castelsarrarin-La Mongie, 197,5 km



UZTAILAK 16, OSTIRALA. Pirinioetan bi etapa egingo dira aurtengo edizioan. Lehena La Mongie mendatean amaituko da. Azken 30 kilometroak izan ezik, gainontzekoak lauak. Azken txanpan, Aspin eta La Mongie igo beharko dituzte. Ez dirudi erabakigarria izango denik.

13. etapa. Lannezeman-Plateau de Beille, 205,5 km



UZTAILAK 17, LARUNBATA. Plateau de Beille mendatean amaitzen den etapa Tourreko gogorrenetakoa da. Guztira, zazpi mendate. Garaienak, Col de Core, Col de Agnes eta Plateau de Beille. Azken honek 15,9 km ditu, eta %7,8 batatz bestekoa.

EUSKAL OKELA

UT ZE ITZU

ETXEK

FK
ZKI K
IKTU K
K NOEL TU K

h k k l , 4
T H 433 5742


Ford

Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL


Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92



Ea asmatzen duzun!

Lotu itzazu zenbakien bidez

Lotu itzazu gezi bidez



1



8




2




9



3



1



4



1



5



1



6



1



7



1

- | | | |
|--------------------------|--------------|------------------|
| <input type="checkbox"/> | Antxoa | Verdel |
| <input type="checkbox"/> | Bakailaoa | Salmonete |
| <input type="checkbox"/> | Barbarina | Salmon |
| <input type="checkbox"/> | Berdela | Rape |
| <input type="checkbox"/> | Bisigua | Anchoa |
| <input type="checkbox"/> | Hegaluzea | Merluza |
| <input type="checkbox"/> | Izokina | Besugo |
| <input type="checkbox"/> | Oilarra | Bacalao |
| <input type="checkbox"/> | Mihi-arraina | Lubina |
| <input type="checkbox"/> | Lupia | Jurel |
| <input type="checkbox"/> | Legatza | Lenguado |
| <input type="checkbox"/> | Txitxarroa | Bonito del Norte |
| <input type="checkbox"/> | Urraburua | Gallo |
| <input type="checkbox"/> | Zapoa | Dorada |

Soluzioak

Zenbakia: 1. Bakailaoa, 2. Barbarina, 3. Lupia, 4. Bisigua, 5. Oilarra, 6. Urraburua, 7. Txitxarroa, 8. Izokina, 9. Antxoa, 10. Mihi-arraina, 11. Hegaluzea, 12. Zapoa, 13. Berdela, 14. Legatza.

Geziak: Antxoa-Anchoa / Bakailaoa-Bacalao / Barbarina-Lenguado / Berdela-Verdel / Bisigua-Besugo / Hegaluzea-Bonito del Norte / Izokina-Salmon / Oilarra-Gallo / Mihi arraina-Lenguado / Lupia-Lubina / Legatza-Merluza / Txitxarroa-Jurel / Urraburua-Dorada / Zapoa-Rape.

NOAUA!ko LEHIAKETA!!

Kantu ezagun honetan falta diren hitzak ondo betetzen dutenen artean bi sari hauek zozketatuko ditugu. Animatu eta parte hartu!



ASTERIX LEGIONARIA
Euskarazko komikia
JUANTXO ETA BABARRUN LANDAREA
Ipuin eranskailudunak

FELIX AIZPURUA
II. literatura lehiaketaren inguruko liburuxka
Carmen Kurtz-en
OSKAR ETA OVNIAK

Ikusi mendizaleak
baso eta
mendi tontor gainera
igo behar
Ez nekeak,
ezta bide txarrak
gora, gora! Euskal
a, a, a,
gu euskaldunak gara
Euskal

Hemen mendi
euskal lurren artean
begiak
bihotza erreta.
Hain
hain polita da eta
gora, gora! Euskal Herria
a, a, a,
gu euskaldunak
Euskal Herrikoak.

IBAI SENDAGILE ipuia
FELIX AIZPURUA
II. literatura lehiaketaren inguruko liburuxka
Gabriel Janer-en
GAXPAR ERREGA
AURKITU EZBERDINTASUNAK liburuxka



Erantzunak bidaltzeko azken eguna **UZTAILAK 17**
Noaua! hamaboskaria, Bordaheñri 3 Liguzkitzaldea,
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Noaua! Kultur Elkarteko buzoia
E-maila: erreklakzioa@noaua.com

185. lehiaketako erantzunak hauek dira:

1. Herriko zein elkartetek ospatu zuten ekainaren 20ean X. urteurrena?
AITZAGA ELKARTEAK
2. Lita esango al diguzun elkarte hau dagoen etxeak nola izena duen?
PARIS ETXEA

Irabazlea **INAKI ZUGASITI** (Atsegalde)
izan da. "Badakir" euskarazko mahai jokoa eta
"Zazpiak Batman" kamiseta irabazi dituen.
Jaso ezazu saria Noaualko egutzan.
ZORIONAK!



Azken mahai jokoa, Ane de Migueltzat

Azken hilabeteotan Elhuyar Fundazioaren "Gipuzkoa zure esku" izeneko hainbat mahai-joko zozketatu ditugu gure irakurleen artean. Funtsean, gazteei zuzenduriko jokoa da, aisialdian euskaraz aritzeko mahai-joko eta CD-Rom paregabea.

Argitalpen didaktiko eta atsegin honi esker, jolasean arituz, Gipuzkoaren nondik norakoak ezagutuko daitezke.

Martxoan hasi ginen mahai-joko

hauen zozketak egiten. Martxoko irabazlea Haritz Lizarralde izan zen. Apirilean, Jon Mikel Azpiakuz jaso zuen bigarren mahai-jokoa. Maiatzean, Enara Barandain izan zen garailea. Ekaineko mahai jokoa, aldiz, Ane de Migueltzat izango da. Mila esker lehiaketan parte hartu duzuen guztioi eta baita Elhuyarreko lagunei ere. Irabazleei, berriz, zorionak!

Jada ez zaizkigu joko gehiago geratzen. Baina dendetan modu onean eskura dezakezue mahai-joko hauxe.



MARTXOAN HASI GINEN "GIPUZKOA ZURE ESKU" IZENeko MAHAI-JOKOAK ZOZKETATZEN

Haur jantziak Beherapenak!
Sauma
Kale Nagusia, 10 Telf: 943 365 943

Menuek astean zehar eta
ZENDOIA taberna
Kale Nagusia 35
Telf: 943374021
asteburutan Menu bereziak

ZORIONAK
ALDAR

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erositako nuke. 943 364469.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kotxe bat salgai daukagu 600 eurotan. Interesatuak edozein ordutan deitu 635729637 telefonora.
- Usurbilen, Urbil merkatal-zentruaren ondoan 420 m²tako lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokitu, lokal argia, ordenagailu-sarea instalatua, ordenagailu askorentzako hargunea. Interesatuak deitu: 943-363040
- Salgai Opel Corsa 1.4. Ondo zaindua. 80.000 km. 678 619 127.
- Garaje bat saltzen dut Kale Nagusian, prezioa: 12.000 euro. Beste garaje bat alokairuan uzteko prest nago, Bizkarren, 50 euro hileko. Telefonoa: 687 40 62 09.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Umean zainduko nituzke uztailean arratsaldez. Esperientzi duan eta euskalduan. Interesatuak deitu 943361115 zenbakira.
- Emakume bat eskeintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko (urteetako esperientzia). Interesatuak deitu: 626641155 Mariaje.
- Jatetxeetako platerak garbitzeko edo

antzeko lanetarako norbait falta bazazu deitu: 626641155 Mariaje.

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. 943 37 10 32.
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. 647 220 966 (Mari Karmen).
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako goizes edo arratsaldez. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943365737.

Lan-eskaintzak

- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. Interesatuak 943376902 - 665749615 gaeuz.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32 (Arratsaldez).
- GOLF CL txuri bat daukagu salgai. 140.000 km dauzka eta oso ondo zaindua dago. Interesatuak 667 521 893 telefonora deitu.
- Pultsera bat aurkitu dut anbulategiko aparkalekuan. Galdu duenak deitu: 649387758.
- Poltsa bat galdu dut herrian. Topatu

baduzu deitu 637 046 389 telefonora.

- Zilarrezko brotze bat galdu nuen San Esteban kaletik, okindegia eta supermerkatu bidean. Topatu baduzue deitu 943371237 telefonora.
- Neska bat eskeintzen da edozein lanetarako. Deitu 943364659 (Arantxa)
- Ingelera eta euskara. Neska arduraduna eskaintzen da klaseak emateko. Izatez euskalduna eta eskola ingelesean ikasia. Edozein adin eta ordutegitan erakusteko prest. 677656565 / 943313517 (Ane).
- Frontoi ingurutik Ugarte poligono artean zilar koloreko erloju bat galdu dut. Norbaitek aurkitu badu Noauaren egoitzara ekarri.

JAIOTZAK

- **Ane Giralde Gonzalez**
2004ko ekainaren 23an.

HERIOTZAK

- **Joxe Beraetxe Aranburu**
2004ko ekainaren 17an.



HERIOTZAK

- **Jose Jabier Agirre Mujika**
2004ko ekainaren 30ean, 50 urte zituela. Aginaga.

* Usurbilgo Bake Epaitegiko datuak.

GLG
garraioak

ZABOR BILKÆT

TELF: 943 37 01 46

TXU UT



rt

t musk ts n

S n Est nk l , 1
TI 33

SOLOZABAL AUTOESKOLA



- Klase teoriko zein praktikokoak, norberak nahi dituenen
- Klase teorikoak ikusentzunezko abantailak erabilita
- Merkuntziak eta bidaiariek gurrualtzeko nazio arteko agentzia zihurta agiria lortzeko ikastaroak
- Garraio arriskutsuen ikastaroak
- Gidatzeko karnet guztiak

Kale Nagusia Telf.: 943 376 936 Usurbil 20170



Agenda !

Zubieta Herri Jaiak

Uztailak 23 Ostirala

19:00.- Jaien hasiera.

21:00.- Herri afaria.

Uztailak 24 Larunbata

10:30.- II. Rai karreraren hasieta
(zaldi karrera).

15:00.- II. Rai karreraren amaiera.

17:30.- Futbito partida.

19:00.- Patxi eta Batbiru dantzatiko
taldearekin erromeria.

21:00.- Sardina jana eta sagardoa.

Ondoren, erromeriaren jarraipena.

01:30.- Izotz taldearekin erromeria.

Uztailak 25 Igandea

09:00.- Esna-deia.

10:00.- Artisau azokaren hasiera.


11:00.- Meza Nagusia.

11:30.- Hamaiketakoa, sagardo dastaketarekin.
Ondoren, soka dantza.

18:00.- Zubietako VII. Trikitixa Txapelketa.


22:30.- Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Jon
Maia, A. M. Peñagarikano, Oihane Enbeita.
Gai-jartzaile: Xabier Sukia.Ondoren Irma eta Amets trikitilarien
erromeria.**OHARRA:** Uztailak 26-31 eguneko ekitaldiak
datorren NOAUAIn argitaratuko ditugu, uztai-
laren 23ko alean. Egitarau osoa, dena den, ale
honetako gehigarrian topatuko duzue.

Literaturaren txokoa !



Espioitza liburu atsegina

Mundua aldaregia alda dezakeen deskubrimendua potentzia handien isilpean gorde dute nazioarteko fisikari ospetsuenek, II. Mundu Gerraz geroztik. Mende erdi geroago, Donostiako International Physics Center-eko fisikari gazte bat, Mireia Elosegi, ikerketa bat egiten ari da, bakarka baina ez berak uste bezain sekretuan.



Zientzia eta espioitza uztartzen dituen thriller indartsu honek beregan biltzen ditu irakurlea harrapatze-ko dohain guztiak: jakin-mina pizten duen planteamendua, arriskua, armak, amodioa, ekintza aurrera eramateko trebezia, hari guztiak egoki josteko abilezia, erritmo arina...

Orain arte nerabzaroko kezkek eta gazi-gozaok kontagai bihurtzen bikain moldatu den Fernando Morillok egiazko maisutasuna erakusten digu misterioaren generoan

ere, gaia ongi ezagutzen duenaren segurtasuna, ofizioa menderatzen duenaren sinesgarritasuna eta hizkuntza biziaren gozotasuna elkartuz.

Fernando Morillo (Azpeitia, 1974) Filosofia eta Fisika ikasitakoa da, bokazioz idazlea. Sari ugari irabazi ditu (CAF-Elhuyar, Donostia Hiria, Igartza, Euskadi Saria gazte literaturan...), eta hainbat liburu plazaratu: "Bila nazatela", "Sexu egunsentiak", "Bihotz nahasiak", "Izar malkoak", "Eta ni zer?" gazte-entzako kontakizunak, "Erraldoi herrena" saiakera, "Ortzadarra sutan" eleberria eta "Leonardo da Vinci" biografia.

FITXA TEKNIKOAI:

Izenburua: Gloria Mundi

Egilea: Fernando Morillo

Orriak: 232

Salneurria: 14,75 euro


al s p stera



F t x k
f x k k l r i n
l s (k z k (I N) +)
r x z p t z u (s - r t z k)
l n n k k (+)
r t k k a k
E n k u - x i k (w r - k r l k l a r o)
L u r - z k u z l - n

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

**TXIRIBOGA**
TABERNAn t x k , k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

ETXESAGASTI Inmobiliaria

Lan egiten dugu:

- Promozioetan
- Eraikuntza berrietan
- Bigarren eskuko etxeetan

Telefona: 943 696 854**Bilatzen ditugu:**

- Etxeak
- Baserriak
- Lur sailak



ELHUYAR
aholkularitza

1 Euskara-planak enpresa, erakunde eta udalerrietan

1 Erakundeen gogoeta estrategikoa

1 Pertsonen kudeaketa-sistema eta antolamenduaren garapena

1 Herritarren parte-hartzea sustatzeko planak

1 Produktuak: Elhebi eta Enpresan Euskaraz softwarea

AHOLKULARITZA - ZERBITZUA

Asteasuain 7
28178 Usurbil
tl.: 943 372 052

Iparragirre 2
48200 Durango
tl.: 944 668 816

www.elhuyaraholkularitza.net

MARGOAK - PAPERAK

**FERNANDO
PINTURAK**

**ENPAPELAKETAK ETA
PINTURAK OROKORREAN**

FERNANDO PINTURAK



Kale Nagusia, 1
Tel: 943 36 60 19-36 34 60



**"Herri txikiak bizirik
Eskola Txikiak Bizirik"**

**Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
Lehen Zikloa
(2 eta 8 arteko adina)**

**-Inglesa goiztiarra
-D Eredua**

Zubietako Haur Eskola: Learritza, 52 Telf.: 943 372 931 E-mail: 012219aa@hezkuntza.net

Zubietako Herri
Batzarrak Santio
jai zoriontsuak opa
dizkizue guztioi!

